

Jaun/Andre hori:

2021eko urriaren 4an, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera egin duzu 09:00etatik 09:45era, www.osakidetz.euskadi.eus webgunean dagoen aplikazioaren bidez (ibilbidea: profesionalentzako zerbitzuak/enplegu publikoa/aldi baterako kontratazioa).

Alde horretan segurtasuna hautsi da aplikazioan, eta horrek eragina izan zuen zure datu pertsonaletan (NAN, izen-abizenak, jaioteguna, sexua, nazionalitatea, udalerrria, posta-kodea, probintzia, herrialdea, telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta desgaitasuna). Prozesu berean eskaera egiten ari ziren beste pertsona batzuek datu horietara sartu ahal izan ziren.

Horren berri izan bezain laster, eten egin da kontratazio-zerrendetan izena emateko zerbitzua.

Era berean, urriaren 4ko 09:00etatik 09:45era egindako eskaera guztiak baliogabetzea erabaki da, tarte horretan ezin izan delako datuen osotasuna bermatu.

Arazo teknikoak konpondu ondoren, eta aplikazioa datu pertsonalen kudeketaren segurtasuna bermatu ahl izateko moduan zuzendu ondoren, 2021eko aldi baterako kontratazioen zerrenden aplikazioa berriro ireki da.

Jakinarazten dizugu beste inskripzio bat egin beharko duzula; izan ere, adierazi dizugun bezala, beharrezkoa izan da urriaren 4an 09: 00etatik 09: 45era bitartean egindako eskaera guztiak baliogabetzea, eta horien artean dago zuk egindako eskaera.

Barkamena eskatzen dizugu ezusteko egoera horrek eragindako arazoengatik, eta jakinarazten dizugu informazio gehiago eskuratu ahal izango duzula Giza Baliabideak Hautatzeko eta Hornitzeko zuzendariordetzaren bitartez. 2021lp-lc@osakidetz.eus

KONTRATAZIO ZERBITZUA